

## 2023/2024 SICUE MUGIKORTASUNA

### GAUR-eko PROZESUA

(2023-01-25)

Egutegia

Nola egin zure eskaera GAUR-en 8 urratsetan

Zer egin behar duzu norakoren bat esleitzen zaizunean

Eskolarekin harremana

## Egutegia

GAUR-eko eskaera eta esleipen-prozesuaren egutegi osoa, [Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzaren webgunean](#) argitaratuta dago.

Kontuan izan behar dituzun data garrantzitsuenak gogorarazten dizkizugu:

- **2023ko otsailaren 13tik 27ra arte: eskaera** egiten duzu **GAUR-en**.
- **2023ko otsailaren 13tik 28ra: Eskolako Nazioarteko Harremanen arloko Bulegoan ematen duzu nahitaezko dokumentazioa** (irakurri arreta handiz gure webgunean argitaratuta dagoen *2023/2024 epeak eta prozedurak – SICUE* dokumentua).
- **2023ko martxoaren 15ean: 1. itzulian** esleitutako plazen **zerrenda** argitaratzen da.
- **2023ko martxoaren 16tik 21era arte: 1. itzulian** esleitutako plaza onartu edo ukatzeko epea (\*)
- **2023ko martxoaren 28an: 2. itzulian** esleitutako plazen **zerrenda** argitaratzen da.
- **2023ko martxoaren 29tik 31ra arte: 2. itzulian** esleitutako plaza onartu edo ukatzeko epea (\*)

(\*) **OSO GARRANTZITSUA:** Ezarritako epean onartzen ez baduzu ala uko egiten ez badiuzu, Errektoreordetzak “ez-egiteagatik” uko egiten diozula ulertuko du, eta prozesutik kanpo geratuko zara. Hau da, **SICUE mugikortasuna gabe geratuko zara 2023/2024 ikasturtean**. Gainera, **penalizazioa jarriko dizute, eta ezin izango duzu hurrengo ikasterturako ere mugikortasuna eskatu.**

## Nola egin zure eskaera GAUR-en 8 urratsetan

- 1. urratsa** - [Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzaren webgunean](#) dauden instrukzioak Irakurtzen dituzu arreta handiz.
- 2. urratsa** - GAUR-en sartzen zara: **Unibertsitate trukea > Kontsultak > Trukeko mugikortasunak > Bilboko Ingeniaritza Eskola** atalean norakoei buruzko informazioa aurkituko duzu. Kontsulta-zerrenda honetan agertzen diren plazak eskatu ahal izango dituzu soilik. **Unibertsitate trukea > Kontsultak > Trukeko mugikortasunak** atalean eskaera egin ahal izango duzu.
- 3. urratsa** - Egiaztatu itzazu zure datu pertsonalak. Datu hauetako bat zuzendu edo aldatu behar baduzu, Eskolako Idazkaritzarekin harremanetan jarri behar izango duzu, haiek nola egin behar duzun esan diezazuten.
- 4. urratsa** - Zure datu pertsonalak guztiak egiaztatu ondoren, sakatu "Eskaera berria" botoia eskaera egiteko. SICUE programa eskatu ahal izango duzu, 5 aukera gehien jota. Aukerak zure lehentasunaren arabera ordenatu ahal izango dituzu, eta ezabatu ere bai. Ez ahaztu egonaldiaren iraunpena ondo hautatu behar duzula, mugikortasuna egin nahi duzun lauhilabetekoa adieraziz.
- 5. urratsa** - **JARRAITU** botoia sakatuz hurrengo pantailara joango zara. Berrero, aukeren ordena aldatu edo aukeraren bat ezabatu ahal izango duzu. Iraunpena eta lauhilabetekoa aldatzea ere izango duzu. Adierazi *Azalpen memoria* atalean zein kurtsoan zauden matrikulatuta eta zer ikasi nahi duzun markatutako lehen aukeran. Eskolako buddy-a izan bazara, adierazi hor lauhilabetekoa(k). Taldeko ordezkaria izan bazara, adierazi hor ikasturtea(k).
- 6. urratsa** - **JARRAITU** botoia sakatuz hurrengo pantailara joango zara. Hemen zure eskaera berrikusteko aukera duzu, amaitu baino lehen. Prozedura osoa amaitzeko, sakatu **JARRAITU** botoia. Mezu bat agertuko zaizu, eskaera zuzenki egin duzula esanez.
- 7. urratsa** - Behin eskaera amaituta, inprimatu behar duzu, Eskolako Nazioarteko Harremanen Bulegoan emateko, beste dokumentuekin batera. GAUR-ek automatikoki emandako mezu bat ere jasoko duzu zure posta elektronikoan,
- 8. urratsa** - **Unibertsitate trukea > Kontsultak > Egindako eskaerak** atalean zure eskaera ikusi dezakezu.

**GARRANTZITSUA:** GAUR-tik emandako komunikazio automatiko guztiak zure [@ikasle.ehu.eus](mailto:@ikasle.ehu.eus) kontura bidaliko dira. Normalean erabiltzen duzun kontura berzuzenduta badaukazu, gogoratu *ikasle* sarrera buzoia sarritan garbitu behar duzula. Bestela, garrantzi handiko informazioa galduko duzu. Eta gogoratu **zure eskaera egiteko jarraibide osoak** [Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzaren webgunean](#) daudela, zure eskura.

## Zer egin behar duzu norakoren bat esleitzen zaizunean

GAUR fasean, bi itzulia dago norakoak esleitzeko

### 1. itzulia

Lehen itzulian plaza bat esleitzen bazaizu, plaza hori onartu behar duzu ala uko egin behar diozu ezarritako epean (2023ko martxoaren 16tik 21era arte). Bestela, Errektoreordetzak “ez-egiteagatik” uko eigten diozula ulertuko du eta prozeduratik kanpoan utziko dizu. Hau da, ezin izango duzu 2023/2024 ikaturtean mugikortasuna egin. Gainera, penalizazioa jarriko dizute, eta ezin izango duzu hurrengo ikasterturako ere mugikortasuna eskatu.

Esleitutako plaza onartzeko/plazari uko egiteko:

**1. urratsa** – [Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzaren webgunean](#) irakurtzen dituzu arreta handiz plaza onartzeko/plazari uko egiteko jarraibideak,.

**2. urratsa** – GAUR-en, sartu **Unibertsitate trukea > Kontsultak > Egindako eskaerak** atalean eta hautatu esleitutako plaza. Behean, bi botoi aktibatzen dira: *Uko egitea* eta *Onartu baldintzak*.

**3. urratsa** - Sakatu botoi hauetako bat (*Uko egitea* ala *Onartu baldintzak*).

- *Uko egitea* botoia sakatuz gero, uko egiten diezu norako horri eta lehentasun-hurrenkeran azpitik dauden guztiei. Kontuz, uko egiten ari zaizun norakoa zure lehenengo aukera bada, norako guztiei uko egingo diezulako. Hau da, **ezin izango duzu egin SICUE mugikortasuna 2023/2024 ikasturtean**.
- *Onartu baldintzak* botoia sakatuz gero, esleitutako norakoa onartzen duzu, eta lehentasun-hurrenkeran azpitik dauden beste guztiak kanpoan geratuko dira.
  - Esleitutako eta onartutako norakoa zure lehen aukera ez bazen, 2. itzulian zure lehentasun-hurrenkeran onartutakoaren gainetik dagoen norako bat esleitzeko aukera dago.
  - Esleitutako eta onartutako norakoa zure lehen aukera bazen, ezin izango zaizu esleipena hobetu, eta norako hori behin-betikoa izango da.

### 2. itzulia

Bigarren itzulian plaza bat esleitzen bazaizu, plaza hori onartu behar duzu ala uko egin behar diozu ezarritako epean (2023ko martxoaren 29tik 31ra arte). Bestela, Errektoreordetzak “ez-egiteagatik” uko eigten diozula ulertuko du eta prozeduratik kanpoan utziko dizu. Hau da, ezin izango duzu 2023/2024 ikaturtean mugikortasuna egin. Gainera, penalizazioa jarriko dizute, eta ezin izango duzu hurrengo ikasterturako ere SICUE mugikortasuna eskatu.

Esleitutako plaza onartzeko/plazari uko egiteko:

**1. urratsa** – [Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzaren webgunean](#) irakurtzen dituzu arreta handiz plaza onartzeko/plazari uko egiteko jarraibideak,.

**2. urratsa** – GAUR-en, sartu **Unibertsitate trukea > Kontsultak > Egindako eskaerak** atalean eta hautatu esleitutako plaza. Behean, bi botoi aktibatzen dira: *Uko egitea* eta *Onartu baldintzak*.

**3. urratsa** - Sakatu botoi hauetako bat (*Uko egitea* ala *Onartu baldintzak*).

- *Uko egitea* botoia sakatuz gero, uko egiten diezu norako horri eta lehentasun-hurrenkeran azpitik dauden guztiei. Kontuz, uko egiten ari zaizun norakoa zure lehenengo aukera bada, norako guztiei uko egingo diezulako. Hau da, **ezin izango duzu egin SICUE mugikortasuna 2023/2024 ikasturtean**.
- *Onartu baldintzak* botoia sakatuz gero, esleitutako norakoa onartzen duzu, eta lehentasun-hurrenkeran azpitik dauden beste guztiak kanpoan geratuko dira.

**GARRANTZITSUA:** GAUR-tik emandako komunikazio automatiko guztiak zure [@ikasle.ehu.eus](mailto:@ikasle.ehu.eus) kontura bidaliko dila. Normalean erabiltzen duzun kontura berzuzenduta badaukazu, gogoratu *ikasle* sarrera buzoia sarritan garbitu behar duzula. Bestela, garrantzi handiko informazioa galduko duzu. Eta gogoratu **zure eskaera egiteko jarraibide osoak [Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzaren webgunean](#)** daudela, zure eskura.

## Eskolarekin harremana

Zure unibertsitate-trukearekin erlazio duten gai eta zalantza guztiak, [sicue.eib@ehu.eus](mailto:sicue.eib@ehu.eus) helbideari bidali behar dizkiozu. Gurekin harremanetan jar zaitezke +34 94 601 8226 telefono zebankian ere, edo Eskolako Nazioarteko Harremanen Bulegoan (P1E2 bulegoa), [jendearretako ordutegian](#).

RRR!!! EIB